

dunagoa dela uste dutenentzat Done Elmo edo Elmo Donea (edo Deuna) behar zuenak Telmo Deuna daroa.

Harrigarriagoa beste honako hau da, zumaia bati entzuna: «Ba, oker baldin badago hobe; santu bat gehiago».

Galdetzekoa litzake zeruan tokirik zuen ala ez. Dena dela, ikazginaren fede hori ez dakit zer izango den, baina itsumustuan ari direnena gauza bitxia dela badakigu.

SITSA ETA ZERENA, BI GAUZA DIRA.—Euskalkirik gehienetan *pipia*-rekin ezagutzen dira gaztelerazko «polilla» eta «carcoma». Bereizketarik gabe. Baina, Bizkaian eta Gipuzkoako zenbait tokitan oihalari eta zurari sortzen zaizkien zomorroak beren izen jatorrak dituzte: *Sits*, «polilla» eta *Zeren*, «carcoma» (xilófago).

Azkuek bere Hiztegian oso argi dakar *Sits*, baina *Zeren*, xilofagoa, hirugarren mailako eta bereizkuntzarik gabe. Horrez gainera, *Zeden* ere badakar, bigarren mailako eta ez hain ongi zehaztua. Toribio Etxebarriak ordea, «Lexicón»en (*Euskera*, X-XI, 1965-66), «ziz da biz» ematen du bien arteko bereizketa. *Zits*, zetakin badakar ere, bere esan nahia «Polilla. La de la madera: zerena» bereiztuko du ondoko esaldi hau adierazgarri gehituz: «*Zitsak jan detsa soñekurik onena* Le ha comido la polilla el mejor vestido». Zerenaren adierazpenaldiz, honako esaldiz: «Polilla que ataca la madera, sinón. zitsa. *Zerenak jaten dau egurra, zitsak erropia*».

J. S. M.